

EGUBERRI TRISTEA

Naia Leconte Galarraga, 13 urte

Angelu/Anglet

Eguberri da, zuhaitza opariz betea dago. Nirea ere bertan da. Aurten panpina polit bat eskatu dut. Asko gustatzen zaizkit panpinak. Hala ere, ez dakit nire mezua, nire nahia, iritsiko zaien. Kezkatuta nago. Garai honetan ama beti negarrez hasten da; batez ere aitatxi-amatxiekin nire txikitako argazkiak ikusten hasten denean. Aita eta anaia ere triste daude. Baina Ibairi ez dio anitz iraunen aurpegi horrek... Oparia ireki bezain laster alaituko zaio.

Ibai anaia txikia da. Biziki maite dut. Biziki lotua sentitzen naiz harekin, beharbada orain gehiago, babes gabe delako. Etxean lau gara, ginen: aita, ama, Ibai eta ni. Bi hilabete barne, aitatxi ere gure artean izanen dugu. Aitaren aita, aitatxi Victor. Amatxi, zoritxarrez hil egin zitzaigun, zeuzkan diru guztiak guri utziz.

Pozez nago aitatxi etorriko delako, bere umore onarekin gure egunak alaitzera. Hamahiru urte nituenean, aitatzik Parisera eraman gintuen Ibai eta ni. Inoiz ez dut ahantziko bidaia hura! Ibaik gurasoen eskasa sentitzen zuen eta nigan aurkitu

zuen momentu hartan behar zuen maitasuna. Geroztik, biziki lotuak gaude. Beharbada horregatik dago orain hain triste.

Beti izan naiz neska alai. Lagun anitz ditut; bi esku eta bi oinen behatzak kontaturik ere, oraindik asko ditut kontatzeko. Baina badut lagun berezi bat: Mikel. Biziki maite dut. Hala ere, ez dugu gehiago harremanik, nire lagun hoberenarekin hasi delako irteten. Berdin dio, badakit nire hutsunea beti sentituko duela.

Kezkatua nago berriro ere. Amak ez du bururik altxatzen. Beti iruditu zait emakume gogorra, sendoa, arazoei aurre egiten diena. Ez diot amari aski eskertu guregatik egin duen guztia, nahiz eta berak ongi dakien harro sentitzen naizela haren alaba izateaz. Beti nago sentimendu, pentsamendu eta harat-honatetan, baina sentitzen ez nauenez ezin dut lagundu. Gustatuko litzaidake laguntzea eta bion kezkak elkarrekin uxatzea, baina ezin dut. Pasatuko zaio. Mundu guztiari pasatzen zaio. Egun seinalatuetan bakarrik oroitzen dira gutaz, hildakoez... Hilda nago; leuzemia batek banandu ninduen nire familiarengandik. Uste dut egun hartatik inork ez duela bururik altxatu. Ulertzekoa da, baina ez; ez, baina bai. Haien tokian banintz, zer egingo nuke nik?

Gaizki pasatu nuen. Oso gaiki. Nekatuta sentitzen hasi nintzen, pisua eta gosea galtzen. Gaixo sentitzen nintzen une oro. Aitak bere ospitalean egin zizkidan azterketek ez zuten ezertarako balio izan. Beranduegi zen jada, ez zegoen atzera buel-

tarik. Berria eman zidaten unetik, lasterrago bizi nahi izan nuen, baina alferrik, minutuak segundo egiten zitzaizkidan, orduak minutu, eta horrela, mundu hau uzteko garaia iritsi zen arte.

Nire aita onkologoa da. Jende anitzi lagundu die ospitalean, baina pertsona asko ere hil egin zaizkio esku artean. Etxera itzultzen zenean, triste igarotzen zuen eguna bukatzeko gelditzen zitzaion apurra. Biziki sentimentala da, eta haurrak eri ikusten zituenean, eskertzen zuen bere haurrak zein osasuntsuak ziren ikustean. Ez zioten nire medikua izaten utzi. Denboraldi batez ospitalea uzteko gomendatu zioten eta hala egin zuen. Etxean egon behar zuen ama eta Ibairekin ni ospitalean nengoen bitartean.

Tunela? Ez, ez dago horrelako gauza bitxirik momentua iristen denean. Amatxi eta otto hil zitzaizkidanean, beti pentsatzen nuen zer sentituko ote zen azkeneko momentu haietan. Inoiz ez nuen pentsatuko nirea hain azkar iritsiko zenik.

Ospitalean lagun berezi bat egin nuen: Geroa. Neska horrek aitzina segitzeko indarra ematen zidan. Batzuetan, mundua buru gainera erortzen zitzaidan nire egoera ikusiz: ezin mugitu, indarrrik gabe, ezertarako gai ez... Geroak, ordea, momentu horiei aurre egiteko laguntza ematen zidan. Beti erraten zidan, hil ondoren, nahiz eta ni inork sentitu edo ikusi ez, nik neureak, neure etxeakoak sentituko nituela. Hala da, nik dut orain haien ardura. Zaindu egiten ditut deus txarrik gerta ez dakien. Gainera, ez nago bakarrik, amatxi eta otto nirekin

daude, eta pozik nago, orain nire bihotzean soilik ez daudelako.

Geroak ere leuzemia zuen. Ospitalean geundenean, biok elbarrituen kadiretan jarriak, korridoreetan lasterketak egiten genituen. Erasia galantak entzuten genituen erizainek ikusten gintuztenean. Berdin zitzaigun, ezin zen gainean geneukana baino okerrago izango... Momentu zailenetako bat ilea erortzen hasi zitzaidanekoa izan zen. Beti izan naiz neska polita. Nire ile luzea haizeak ukitzen zuenean, izugarrizko dirdira egiten zuen. Ile luze kizkur beltzarana. Ni bezalako beltzarana. Gorputzaren itxura aldatzen hasi zitzaidanean, psikologo bat etortzen zitzaidan, nire kezkak ahantzen laguntzeko asmoz. Zertarako? Nik banuen neurea: Geroa. Bizitzako azken momentu latzak xamurragoak izaten lagundu zidan.

Nire gaixotasuna berea baino aurreratuagoa zegoen. Horregatik kimioterapia egin ondoren etxera joandakoan, bisitan etortzen zitzaidan. Hasieratik jarri gintuzten elkarrekin ospitaleko gelan. Gure beldur bakarra horixe zen: bietako nork utziko zuen bestea lehenago. Eta gure poz bakarra hauxe zen: egongo ginen tokian egonda ere, azkenean elkarrekin bukatuko genuela.

Amak gaur izugarriko afaria prestatu du. Ez zaio janaria prestatzea gehiegi gustatzen, baina nire aita eta anaia diren bezalakoak izanda, zer erremedio! Zainzuriak, tortillak eta entsalada haragiarekin, nola ez, honen aurretik izugarriko txitxarroa ezarri. Azken-burukoa izozkia tarta zati batekin. Hori

dena elkarrekin jaten ari dira; ni falta naiz. Baina izugarria da nola nire tokia libre uzten duten. Nire gela, nire puskak, ukitu gabe, beren bihotzean eta eguneroko bizitzan ni eramateko.

Orain konturatzen naiz gizakia zein gaiztoa den. Geurekoiak gara, eta arrazoirik izan gabe egiten diogu elkarri iseka. Denbora zalu pasatzen da eta bizi garen egun apurretan ondokoari zer egin behar duen agintzen edo zer egiten duen begira pasatzen dugu. Gauza asko ezabatuko nituzke neure bizitzatik: amari egindako isekak, anaia txikiari egindako gaiztakeriak... Baina horrek guziak ere bere alde onak ditu: momentu txar hauek igaro ondoren etortzen zitzaizkidan muxuak edo barkamenak. Hau da benetan eskas dudana. Nahiz eta otto eta amatxi orain gertu ukan, amaren muxu horiek ezin dira ordezkatu, ezta aita edo anaiaren besarkadak ere. Bakardadea da gehien sentitzen dudana, eta momentu horiek berriro bizitzeko gogoia.

Geroak erraten zidan bezala, momentu hauek beti iristen dira; alde batean edo bestean egonda ere, beti iristen dira, nahiz eta guk nahi dugunean ez izan.

Iritsi da opariak irekitzeko momentua. Nirea Ibaik ireki du, ez da panpina izan, galtza eta elastiko politak baizik; urtebetetze egunean egin ez zizkidatenak. Ez didate panpinarik erosi. Ez dute nire mezua jaso.

Gaur triste nago, pertsona bat bere familiaren-gandik urruntzen denean, etxeakoak bakarrik oroi-

tzen dira; batez ere elkartzeko uneak iristen direnean. Gogoia dut beraiekin egoteko, orain arte bizi izan dudana kontatzeko eta haiek niri beren sentimenduak azaltzeko.

Nik ere izan dut gaur neure oparia. Geroa etorri da gaur nire ondora. Batzuen tristeziak besteen poztasuna dakarrela diote, eta hala dela uste dut. Haren amaren aurpegia nire amaren aurpegiaren berdina da, haren albotik joan nintzen momentuan... Aita gaur lanean da eta haur bat sortu da bere besoetan; batzuk hil eta besteak sortu: bizia-
ren legea. Ez dugu nahi iristea, baina ezinezkoa da saihestea. Garrantzitsuena? Momentuan momentua bizitzea eta batez ere, gurasoei, anaiari, etxeko-
ei... biziki maite ditugula erratea, nahiz eta hitzak haizeak eraman, ekintzek bertan itsasten dituztelako. Eta zoriontsu egitea ni egin nauten bezala eta Geroak orain egingo nauen bezala.